

***Hiriko txirrindularien elkarte
Asociación de ciclistas urbanos/as***



**KIDEENTZAKO
ERANTZUKIZUN ZIBILEKO
ASEGURU PRIBATUA**

Kalapie
Hiriko txirrindularien elkarte
Asociación de ciclistas urbanos/as
Iparragirre, 8
20001 Donostia - San Sebastián
T (+34) 943 451 511 / 629 271 481
kalapie@kalapie.org
kalapie.org

Deskribapena

Bizikleta erabiltzen duten pertsonentzako erantzukizun zibileko aseguruaren bidez, ATLANTIS aseguru-etxeak aseguru hau kontratatu duten pertsonen bizikletaren erabiltzaile partikular gisa hirugarrenei eragindako kalte eta galera material zein pertsonalengatik egotz dakiekeen erantzukizun zibilaren diru-ondorioak haren gain hartzen ditu, indarreko lege-araudiarekin bat etorriaz.

Aseguratutako jarduera elkartekideei bizikleten erabiltzaile gisa egotz dakiekeen erantzukizun zibila da, kirol-jarduera edota lehiaketarik gabe.

Estaldurak:

Ustiapeneko erantzukizun zibila: Ekintza edo ez-egiteetatik eratorritako kalte pertsonal edo materialak, deklaraturako jardueraren eremuan.

- Azpimuga biktimako: 100.000 €.
- Urteko muga: 300.000 €.
- Muga: 150.000 € / ezbeharreko

Estaldura osagarriak:

- Defentsa eta finantzak
- Aseguru-etxeak izendatutako abokatu eta prokuradoreen aurreko defentsa pertsonala eta behin-behineko askatasunerako edota erantzukizun ekonomikoen bermerako fidantza eratzea.

Salbuespen adierazgarriak:

- Isunak eta zigorrak.
- Aseguratuen dolu edo fede gaiztoak eragindako kalteak.

Frankizia:

- 150,00 € ezbeharreko.
- Asegurua urtero berritzen da, apirilaren 1ean.
- Urtean zehar beste pertsonak txertatu ahal izango dira.

Ezbehar bat gertatzen bada, jarri harremanetan KALAPIE elkartearekin istripu-partea betetzeko eta bideratzeko.